

## ERDIAROKO EUSKAL IZENEN IDAZKERA

Gaurko gaiari asiera eman-aurretik, zor diot erantzun labur bat Patxi Salaberri jaunari. Azkenean zenbakian agertu zituen KARMEL'ek bere eskutitzaren zatirik garrantzitsuenak.

Patxi eskerrikasko nere idazlanok irakurtzen dituzulako. Bai al dakizu zure eskutitz ori ulertzea, -bai neri, eta bai aldizkari onen zuzendariari-, asko kosta zitzaigula? Eta ez dakit, azkenean, ere zuzenean ulertu zautudan nik beintzat. Orrela uste al duzute, Patxi, euskaldunen artean irakurtzeko zaletasuna bir-piztutzea?

Danadala, nik «è Losu» gaurko ELOSU dala uste dut, eta «Egoiain» gaurko GOIAIN izan daitekeala, «è Goiain» idatzi berean lumalari ark «Egoiain» idatzi zualako; eta «Las Cruces» gaurko KRUTZETA dala. Zuk baduzu beste era batera pentsatzeko eskubide osoa, estimologiaren arloan ez bait daiteke ziurki ezer askorik esan.

«Jaungoikoari Jaungoikoarena eta deabruari dagokiona», esanaz amaitzen duzu zure idaztia. Ez dakit zer esan nai duzun, baiña, badaezpada, «ar zazu zure partea eta dezagun guztiok pakea».

\*\*\*

Goazen orain gure gaurko larrukira. XIV mendekoa da. Jon Bizkai'ko Jaunak 1375'ko Epaillaren 4'ean izenpetua. Bere mamia, Ugao edo Ubao, Nerbion-ibarreko nekazari erria, arre-

siz inguratutako Uri-Gaztelu biurtzea. Gure dokumentu zarretan ori esan nai du «villa» itzak: arrizko orma sendoz esitutako uria. Larruki onen bidez, itxura ez eze izena ere aldatzen dio Jaunak Ugao zarrari. Uri berriak, Ugao ez baiña MIRAVALLS izen-eramango bait du.

Bizkai'ko Jaun ori, III Jon izan zan, Gaztelako II Endika Erregearen semea, eta Errege au 1379'an il zanean, Gaztela'ko I Jon lez, aren buruntza jantzi zuana. Entzun eiozu berari:

«Yo el infante don Juan, hijo primero heredero del muy noble y muy alto mi señor el rey don Henrique, y señor de Lara y de Vizcaya».

(Dokumentua, nai ba'duzu, Eusko-Ikaskuntza'ren «Colección Documental del Archivo General del Señorío de Vizcaya» deritzan liburuaren 20'gn orrialdean aurkituko duzu. Liburu ori, «Fuentes Documentales Medievales del País Vasco» izeneko bildumakoa da).

Arras kristauak ziran erdiaroko Errege eta Jaun aiek. Ikus nola asten duan larruki au, gure III Jon'ek: «En el nombre de Dios todopoderoso que es comienzo y fin de todas las cosas y de la Virgen Santa Maria a quien yo tengo por señora y abogada en todos mis fechos».

Kristautasun orren kerizpean, zero sarturik zegoan egintari aien buru-muiñetan teokrazi-era baten kutsua: Jainkoa da mundu guziko Erregea; eta munduko lurralde bakoitzan, Jainkoaren izenean, eta Jainkoarengandik bakarrik artutako aalmenez, Erregea da, Jainkoaren ordezkaria, beraz, iñork ez dezaioke bere almenari iñork mugarik ipiñi eta Jainkoa bakarrik izan dai-teke bere ekintzen Epaille bakarra.

Bizkai'n ez ziran gauzak orrela. Bizkai'n, Gernika'n bilduta erriaren ordezkariak ematen zioten Jaunari agintaritza; eta Jauna, ortaz, Bizkai'ko Erriaren ordezkari zan Jainkoarena baiño geiago. Baiñan, errez aztuten zuten ori Bizkai'ko Jaunek. Entzun Jon III'ari:

«...pertencze a los que han de rexir y gobernar algunas tierras, maiormente a los reyes y otros grandes sennores que tienen lugar de Dios en la tierra, de acrecentar siempre sus sennorios y aunque algunas vegadas (=veces) no los acrecientte de fecho, pero siempre debe hacer inttencion y propositto de siempre los acrecenttar»...

Logika utsa guztia. Jainkoak, bere ekintza guztietan, bere aintza eta bere aunditasuna du azken arrazoi eta elburu. Jainkoaren Ordezkarri izanik, bere aalmenaren aunditasuna izan bear du Erregeak ere bere bizitzaren elburu gurena: «acrecnttar sus sennorios».

Zeberiotarrek eskatuta eman omen zuan III Jon'ek Ugao ormaz inguratzeko eskubidea: «...los hombres buenos ansi fixosdalgo como labradores de la comarca que dicen ZEBERIANO que hes en mi sennorio de Vizcaya zerca de la mi villa de Vilbao... me pidieron... aquellos pudiessen hacer y poblar y zercar una villa en el lugar que haora (sic) dizen VGAO».

Toki-izen ugari damaizkigun III Jon'en larruki onek. Ikus:

Lara	Vizcaia	Zeberiano	Vilbao
Vgao	Araetta	Mendoza	Miraballes
Arandia	Barandano	Aldauondo	Acordoyaga
Guindesarin	Pagasarri	Olalucetta	Ochandiano
Vmiborratigui	Arana	Rupando	Arrigorriaga
Vpo	Lecucbasso	Namezcoba	Vrdaola
Mandoya	Arbinano	Arratia	Sagasola
Arrain	Adaro	Arratia	Orozco
Hardearaetta	Gamarreta	Llodio	Aurreceaga
Garecogorta	Oquendo	Brobica	Aldanondo

Berrogei izen guztira eta bat bakarrik «H»z idatzia; saia gaitzen toki-izen oietan ezagunenak aztertzen, HARDEARAETTA atxedun ortaz asita:

HARDEARAETTA.- Bai toki bezala, bai izen bezala, eta baita idazkerari dagokionez ere, arras ulerkaitza gertatu zaigu zorio-

neko HARDEARAETA auxe.

Tokiari dagokionez, HARDEARAETTA non zegoan? Orozko eta Laudio bitartean eskierki. Baiñan..., zeatzago, non? Ikus larrukian nola datorren: «...Orozko, y dende por la cunea a la jua Hardearaetta, y dende arriba a cima Gamarretta». Zerbait ulertu al duzu, irakurle? Ez noski, esaldi ori ulertzeko «cunea» eta «jua» zer diran jakin bearko bait zenuke aurrena, eta ori, bi itz oiek zer esan nai duten inork ez bait daki. Seminario'ko Bibliotekan iztegi zar guztiak ikustatu ditut. Ez dituzte itz oiek aipatzen. Ezta Covarrubias, Corominas eta Martin Alonso'k ere. Ez dirudi beraz gaztelerazko itzak diranik, iztegi oietan danetan bi oien itxurazko itzik ere ez bait da agertzen.

Erdi-arko latin-itzak ote?

Laterako iztegi guztiak ere irauli dizkizut, baiñan ez ditut bi itz oiek aurkitu aal izan. Bai ordea oien antzeko beste batzuk. Adibidez Alfonso Palencia'k onela dio 1490'an argitara eman zuen «Vocabulario en Latin y en Romance» izeneko iztegi ederean:

«Cuneus: abertura et tambien muchedumbre de ombres recogida en uno para penetrar en la batalla por medio de los contrarios. Et tambien cuneus es cuña conque alguna cosa se fiende» (=hender), euskeraz, «arraildu»).

«Juga, son cumbres de los montes. Juga, en el número plural del nombre jugun (=jygo) que es neutro. Se dice juga porque las unas alturas de los montes se juntan con las alturas de otros montes».

«Abertura», «zirriku», «tarte» eta «zoko» da euskeraz «Cuña» berriz, «ziri».

Du Cange'k «Glosarium Mediae et Infimae Latinitatis» dertizan tomoko bere iztegi naroan onela dio: «Cuneus, angulus» Euskeraz «ukondo», «biurgunca», eta baita «zokoa» ere. Itzaren beste bi zentzuak Palencia'ren iztegian aurkitu ditugunaren kidekoak damaizkigu: «ziria» eta «gudari-taldea».

«Jua»ri ez dio Palenzia'k ematen dion zentzurik ematen. Esaten digu alderantziz, itz orren bidez noizbeinka nekazaritzako lurra adierazten dala. Badakar gure «jua»ren antzekoa daitekean «huba» bat ere, eta «huba» «modus agri cum habitatione colonis» dala diosku, ots, «nekazariarentzat bizi-lekua duan nekazaritzako lurra», gure baserria beraz.

Baiñan gure larrukiko «jua» eta Du Cange'ren «huba» itz bat berdina ote dira? Lumalariak «H» agoskatzen zualako «J»z eman ote zigun «jua»? Ez dut uste, gaztekerak «H» arnasturik ez bait du erabili. Ortaz, eta zuzen ez ote nabillaren bildur aundiz, itzulpen au emango nioke nik larrukiko esaldi osoari:

«Orozko, eta ortik zokoa-zear Hardearaetta'ko muñotara, eta ortik, goruntz, Laudio'rekin muga egiten duan Gamarreta'ren gaillurrera».

Eta, «cuneus»ori, erderazko «cuña», euskerazko «ziti» bezala ulertu nai ba'duzu, ziriaren zear-izatea bere ertzean dagoalako, «cuneus» ori erderazko «arista» eta euskerazko «ertza» lez artuaz, «zokoa-zear»en ordez «mendi-ertza-gora» ipiñi bearke duzu. Eta ez zera seguruaski oker ibilliko, XVIII mendean (1791'ean) Academia Española'k argira emandako iztegiak onako au bait diosku: «Cuneo: formación triangular de un batallón que iba a chocar con otro por el vértice para romperle o dividirlo». Eta itz oiek, naitanaiez, ziriaren eta, -kidetasunez-, mendi baten «ertza» dakarkigute gogora. Beraz, «Orozko, eta ortik mendi-ertza-gora Hardearaetta'ko muñotara».

Orrela ibilli bear izaten da sarritan idazti zar baten esan-nai argitutzeko!

Zeazki, ordea, non ote zegoan Hardearaetta? Laudio'ren iparreak ezpairik gabe, Miraballes'en muga, Areta'n ipintzen bait du III Jon'ek. Ortaz, gaurko ARAKALDO ote zan? Zergaitik diodan ori? Ba, Arakaldo idazti zarretan beñere ikusi ez dedalako. Ala're ez dut ezer baieztan. Galdetu bakarrik egiten dut. Gaiñerra, aburu au ontzat artzeko, ontzat artu bearke genduke aurretik, «jua» ta «huba» itz bera dirala. Oroi alatagutziz, Du Cange'k

«Juga»ri ematen dizkion zentzuetako bat «huba»ri ematen diona bera dala: «baserria.

Izenaren itxurari dagokionez, zer ote dugu Hardearaetta ori? GARDEA-ARAETA? «H» maiz erabiltzen bait zuten «G»ren doiñua emateko.

Gaur-egun bada ere GARDEA bat Laudio'n, baiño ez du guretzat baliorik. Laudio'ko udal-lurretan, egoaldean bait dago. Gureak berriz naitanaiez egon bear bait du iparraldean.

Idazkerari dagokionez, HARDEARAETTA'ren bi TT oiek ez dute esan-nai bereizirik. Ez beintzat, ez dira, Arana Goiri'k ain egoki gain-marra duan t'ren ordezko, gaztelerak t bustirik ez bait du. Oartuko ziñan Gamarraeta'ren alboan dagoan «parte» ori ere bi «tt»z idatzirik dagoala, bi «tt» erabiltzen bait ditu ia beti gure lumalariak «t» bakarraren ordez.

Ez da «H»ak ere, ez du gauerdiko auntzaren ezulak baiño geiago balio. «AR» izkien bidez asten diran izenak, maiz «H»z idatzirik ikusiko dituzu idazkera zaarrea, baiña askoz geiagotan batere «H»rik gabe. Eta askotan, dokumentu bat berean, itz bat bera, aurrena «H»z gero «H»rik gabe, gero oster«H»z eta berriro aurreraxeago «H»rik gabe aterako zaizu begien aurrera.

Ontaz ordea len ere bein baiño geiagotan mintzatu gera-ta, ez noa emen ori oster«H»z egiztatzeko izen zerrenda baten bidez iñor aspertzera.

Seguruaski, gure Hardearaetta'ren «H»a «G» bat besterik ez da.

\*\*\*

VILBAO.- Naiz Iarrukia Ugao'ren alde emana izan Bilbao'ren izena geiago agertzen zaigu bertan Ugao'rena baiño. 23 aldiz Bilbao'rena; 8 aldiz bakarrik Ugao'rena. Ori, zergaitik? Ugao ormadun uri biurtzerakoan, biurketa aren etsai ziran bilbaotarrak biurketa eskatzen zuten zeberiotarrek baiño istillu geiago sortu zutelako.

Bilbao uri indartsua zan ordurako; Nerbion ibaiaren iba-

rrean, Laudio'ren mugaraiño, salerosketa ororen jabe bakarra. Bilbao'ri Bizkai'ko Jaunek emandako eskubideetan omen zegoan jabetza ori: «se contenia que de a dicha villa de Vilbao fasta en ARAETTA que no ouiesse bentta ni rebentta».

Bildur ziran bilbaotarrak, Ugao, uri egiñik, ez ote zitzairen azoka-leku biurtuko. Tolosaldeko esaera zar batek dion bezala,  
«Auzokoa izaki  
etsairik aundiena beti».

VILBAO, emen «V»z eta «B»z agertzen zaigu; emezortzi urte geroxeago, 1393'ko Abenduaren 10'ean, III Endika'ren larruki batean, gutxienez 77 aldiz agertzen zaigu gure uri aundi orren izena baiñan «B»z eta «V»z. Aurrenekoa «B», bigarrena «V»: BILVAO. Ez dagola, idazkerari-buruz, larruki zarretaz fiatzerik!

VILBAO idazkerak aldi luzean iraun zuan. XIX mendean ere ikusi aal izango duzu: «La villa de VILBAO (V ta B) en el señorío de BIZKAIA (B eta K).

Aspaldi hontan, Arana Goiri'z onuntza beintzat, BILBO idatzi eta esan oi da. Ez dut uste ondo dagoanik. Beindik-bein ez dut idatzi zarretan Bilbo'rik aurkitu.

«AO» euskal atzizkia da, eta ia beti «AO», edo fonetikaren eragiñaz «AU» agoskatu oi dana. Orrela, giputzok, izketan ari gentalarik BILBAU esaten diogu Bilbao'ri. Arana Goiri'k berak aitortzen zuan BILBAO itz jatorragoa eta euskaldunagoa iruditzen zitzaiola BILBO baiño.

Euskaldunok errez biurtzen dugu «AO», erri-izen askotan agertzen dan «ANO» atzizkia: Lazkano-LAKAO, Galdakano = GALDAKAO, baiñan beñere ez LAZKO edo GALDAKO. Era berean, Sestao SESTANO baldin bada, SESTAO biurtu dugu, ez SESTO. Badira Bilbao BILBANO dala esaten dutenak. Ori egia balitz, arrazoi orrengaitik ere, BILBAO bear du gure uri ederrak izen, eta ez BILBO.

BILBO izenaren iturburua, edo iturburuetako bat beintzat, ez ote dugu Shakespeare? Antzertilari onek bein «ezpata», eta

beste bein, baituak lotzeko erabi oi diran «oin-billurrak» aipatze-ko darabilki «bilbo» itza. Ala, «Windsord'eko Emazte Alaiak» de-ritzan antzerkian «bilbo» ezpata da. Deitura ori zergaitik? Or-duan, Bilbao'n egiten ziran aizto eta ezpatak ludi osoan izen an- dia zutelako.

Bi ezpatagille ziran garai artan Bilbao'n ezagunenak: UGARTE eta BIDAGUREN. Bada «Bilbao» eta «Bidaguren» «Bl»z asten diralako Shakespeare'k «bilbo» Bidaguren'ek egindako ez- pateai izen-ematen ziela esaten duanik ere. Ez zait tajuzko arra- zoia iruditzen.

«HAMBLET» Dinamarka'ko Erregesemearen izu- antzerkian, onela oiu dagi Hamblet'ek berak: «Methough I lay worse than the mutines in the bilboes»: «matxinoek oin- burnietan katigu baiño okerrago nengoa n». Ezpatak ez eze, oin-billurrak ere egiten ote ziran Bilbao'n? Gaur-egun bertan egiten bait dira oraindik Eibar'en mundu zabaleko errialde as- korentzat.

Oraingo gure iztegiek ere inglanderazko «bilbo» gaztele- razko «espada» dala esango dizute, eta «bilboes», «esposas», «cepo».

Danadala, auxe ere kontuan artu bear dan gauza da: BIL- BAO'ren azkeneko «AO» oiek inglanderaz «O» esaten dirala, «AO» esateko atzetik «H» bat bearrezkoa bait dute. Adibidez, -Inglannderriko erderan AO askorik ez bait da-, FARAON erre- ge ejitotarren izcna «AO» agostatzeko «H» bat erasten diote: PHARAOH.

Gauza bat berdiña beraz idazkeraz, agian, Shakespeare'ren BILBO eta gure BILBAO.

VGAO. Iru era ezberdiñetan idatzia ikusiko duzu larruki ontan, erri onen izena: VGAO geienetan. VBAGO, («en el dicho lugar que dicen Vbago»). VAGON, («que en dicho lugar de Va- gon ouiesse bentta»).

Orduan V ori U agoskatzen zan. Alatagutziz badago jauzi ederra «Vgao», edo gaurko «Ugao»'tik, «Vagon»era. Orrela alda-



tu dira edestia-zear euskal-izen asko. Bizkaiko erri onen izen bakar lez VAGON ori gelditu balitz, eta beste guztiak aztu, gaur «V» ori «U» ez baiña «B» aoskatzen bait da, norik pentsa izan zezakean VAGON izen euskalduna danik, eta, azturik gelditu zan «UGAO» battik sortuta, Ugao aren aldakuntza besterik ez dala?

Jauzi ori, maillaka-maillaka egin zuan gure lumalari zar arek: «UGAO»-tik «VGAO»-ra eta «VBAO»-tik «VAGON»-era.

MIRAVALLS bera «U» eta «B»z idatzia datorkigu: MIRAUALLES bi aldiz eta MIRABALLES beste bi aldiz. Erderazko izen bat idaztean orren baldar ikusten ba'dugu gure lumalari ura, arritze-koa al da UGAO bezain euskal-izen gutxi-entzun bat idazten baldarrago ibilli izatea? Ez dirala fiatzekoak gure idatzi zaarrak!

UGAO ala UBAO. Nola ote da Miraballes'en euskal izena? Nik bein baiña geiagotan Miraballes'en bertan, beren erria euskaraz UBAO dala entzun izan diet ubaotarrei. Ori orrela ba'da, ikerketa bat eginda, bertako jende geienak beren erria UBAO aldezten ba'dute, UBAO esan bear zaio eta UBAO idatzi bear dugu danok erri orren izena. Izkuntza erriarena bait da, ez dokumentuena, eta askoz gutxiago euskerarik jakin ere gabe dokumentu aiek idatzi zituzten lumalari atzerritarrena.

Gaiñera, Izkuntza gauza bizia da. Eta bizia dan orok berekin du aldakuntza. Erriak, izkuntza sortu zuan eta izkuntzaren jabe bakar dan erriak berak, aldatzen du eguneroko, urteoroko, eta mendcoroko, jardunaren bidez bere izkuntza, eta orregaitik, gaur-eguneko izkuntza gaur-egunean dagoan bezalakoa da. Ez atzo-egunean zegoan bezalako.

Gaizki egin du beraz EUSKALTZAINDIK, beste gai batzuetan bezala, gai ontan ere, gure errien euskal izena ezartzerakoan erriaren oituraren gaindik larruki zaarretara jo duanean.

Gaizki egin du, baitare, erri batzuen izenak idazteko fonetikara jo dauanean. Lejona LEIOA idatean adibidez. Erriak berak bai bait daki idazkera gauza bat dala eta beste bat fonetika. BERASTEGI datorkit gogora. An, erriko jendeak BERASTEI esaten

dio bere erriari, baiña badakite danek BERASTEGI idazten dala. Berdin Araba'ko erdaldunen artean. Emen, MONASTERIOGUREN'go jendeak MOSTRUN esaten dio bere erriari. Baiña badaki MONASTERIOGUREN idazten dala.

Eta luze bait noa, beste egun baterako utzi bearko dugu falta zaiguna.

*Latiegi'tar Bixente*



**ESTUDIO  
FOTOGRAFICO**

**ARGAZKARI**

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak  
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak  
Fotokopiak (Txikitzeak)*

San Miguel kalean, 14      Trañabarren-Bloque, 1-4-13  
Urrut: 673 0509      **Matiena - Abadiano**

**AMOREBIETA**